

HITZ BITAN

EUROPAKO BATASUNA. Turkia da eztabaidagaia

Azkar Erantzuteko Indarra
abian jartzeko, Greziaren
onespena lortu nahian dabil EB

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batasuneko Atzerri ministroak Greziaren onespina lortu nahian dabil, Azkar Erantzuteko Indarrari buruzko defentsa egitasmoa bertan behera gera ez dadin. EBk eta Turkiak akordio bat iritsi zuten abenduaren hasieran, baina Greziak begi txarrez ikusten du betidanik etsai izan duen herrialdeak defentsa planean parte hartzea, segurtasuna arriskuan jarriko litzatekeelakoan.

Turkia oztopo bihurtu zen EBren defentsa planerako: ez zizkion erabiltzen utzi nahi bere lurretako NATOren baseak (Turkia NATOko kide da, baina ez EBkoa). Horregatik, negoziatzen

aritu ziren, eta Turkiari kasuko kontsulta egingo zitzaioala erabaki zen. Alabaina, Greziak ez du nahi Turkiak parte hartzea, eta EBk atzerri politika eta defentsan autonomia izan behar duela dio.

60.000 soldadu 2003rako

Europako Batasunean apirilean hasi ziren lehen pausoak ematen 60.000 soldaduz osatutako Europako indarra eratzeko, eta azaroan beste bultzada bat eman zioten egitasmoari. 2003rako soldaduak lanean jarri nahi dituzte. EBren asmoa operazio militarrek aurrera eramateko indar propioa izatea da, Nazio Batuei edota NATOri begira egon gabe.



SHAKH AIVAZOV / AP

Jose Antonio Tremiño eta Francisco Rodríguez enpresa gizonak, zoriotsu, Tbilisiko aireportuan.

GEORGIA

Etxera bidean dira 373 egunez bahituta izan dituzten Espainiako bi enpresa gizonak

Jose Antonio Tremiño eta Francisco Rodríguez Georgiako errepublikan bahituta izan dituzten bi enpresariak Madrilera (Espania) bidean jarri ziren atzo. Tremiñok eta Rodríguezrek 373 egun dituzte bahitzaileen menpe. Denbora ho-

rretan «oso tratu txarra» jaso dutela azaldu zuten atzo bi gizonak Tbilisiko aireportuan (Georgia). Tremiño eta Rodríguez iazko azaroaren 30ean bahitu zituzten, Kalashnikov fusilen mehatxupean, Tbilisiko aireporturako bidean.

adi! **600.000**
b e z e r o k
zure berri izango dute



AUKERATU EUSKALDUNON GIDA KOMERTZIALA

- Euskal Herri osoko hedapena
- Euskaraz
- Erabilgarriago eta erakargarriago
- 80.000 aleko banaketa estrategikoa

- Bi euskarri prezio bakar batean
www.egunkaria.com/gidakomertziala

Ordaintzeko erraztasunak!

Laster bisitatuko zaitugu

Informazio gehiagorako deitu 943 300 222 telefonora
edo e-posta bidez www.publi@egunkaria.com -era

Euskal merkaturako sarbidea

Egunkaria

SAUDI ARABIA

12.000 bat presori amnistia emango die Fahd erregeak

Saudi Arabiako Fahd erregeak 12.000tik gora presori amnistia emango diela jakin zen atzo. Horrela bada, kartzetako lagunen erdiak inguru irtengo dira kalera. Ali al-Harethi jeneralak, kartzetako zuzendariak, hango egunkari bati esan zionez, kargu arinenak dituzten presoak Ramadan garaian utziko dituzte aske; asteburua bukatu baino lehen, beraz.

MALI

Genozidioz akusatutako Ruandako sei ofizial ohi hiriburura eraman dituzte, epaiak bertan betetzeko

Ruandako Nazioarteko Auzitegi Penalak genozidioan erruduntzat jotako lehen sei presoak Malira eraman zituzten atzo, Bamako hiriburura, bertan beteko baitituzte zigorrak. Jean Kamabanda Ruandako lehen ministro ohia dago tartean.

VENEZUELA

Gobernuak negoziazioei ekitea espero dute enpresariak

Venezuelako Gobernuak «oldarkotasuna alde batera utzi eta elkarriketak hastea» espero dutela agertu zuten atzo enpresariak, hamabi orduko lanuztea egin ostean. Hugo Chavez presidentek enpresariak kontra esandakoak —besteak beste, «burugabe» jokatzeko egotzi zien— salatzeko egin zuten greba.



LOUAI BESHARA / EPA

Siriako lehen ministroa.

SIRIA

Presidenteak kabinete berria osatzeko agindua eman du

Bashar al-Assad Siriako presidenteak kabinete berria osatzeko agindu dio Muhammad Mustafa Miro lehen ministroari (irudikoari), eta badirudi Gobernuak ez diola uko egingo presidentearen nahiari. Kabinete berria osatzeko arrazoia ez dago oso garbi, baina baliteke ekonomia-aren alorreko erreformekin lotuta egotea.